



LIBURUA

# Emakumeen odola



LARRY D. MOORE

## NESKAMEAREN IPUINA

EGILEA: MARGARET ATWOOD  
ITZULTZAILEA: ZIGOR GARRO

TXALAPARTA 2020

AMAIA ALVAREZ URIA

**M**argaret Atwoodek 1985ean argitaratu zuen distopia honek gogorarazten digu feminismoak lortutako aitzinamendu bakoitza erraz galdu daitekeela. Freden ezizenez ezagutzen dugun protagonistak bere istorioa kontatuko digu: komandantearen eta bere emaztearen etxean bizi den neska-me da, eta bere betebeharra haien zati haurdun geratzea da, hilean behin hirurek egiten duten *Zeremonian*.

Distopia honetan ez-desiragarria eta beldurgarria den etorkizuna deskribatzen zaigu: diktadura totalitario militar-kristaua, hondamendi ekologiko baten ondoren gehienak antzutu direnean. Emakumeak (Komandanteen Emazteak, haien Alabak, Neskameak, Marta deituriko etxeko langileak eta Ekonoemazteak deituriko langile klasekoak) eta Ezema-

kumeak (zaharrak, antzuak, feministak, lesbianak, arau-urratzaileak eta genero-arauak betetzen ez dituzten gizonak) daude.

Eskuin muturreko alderdien gorakada, abortuaren kontrako legeak, haurdunaldi subrogatuaren legeztatzea, lurra-aren ustiaketa neoliberalak, pandemia eta eskubideen murrizketa... Argi dago ez duela gaurkotasunik galdu eleberri honen. Izan ere, fikzio espekulatibo delako bere egileak (Lurrean kokatutakoa, benetan gerta litekeena, errealitatean oinarritutako fikzioa).

2017an estreinatu zen telesailak egin du ezagun liburu hau Zigor Garrok kartzelan zegoela itzuli zuen eta Txalapatark 2020an argitaratu. Eragin handia izan du, adibidez, Trumpen kontrako eta abortatzeko eskubidearen aldeko ma-

nifestazioetan, AEBetan eta Argentinan. Gainera, 2019an *Testamentuak* eleberria argitaratu zuen Atwoodek jarraipen gisa.

Zapalkuntza eta erresistentzia, flashbackak aurreko bizimoduaren kritika eginez (80ko hamarkadako Ipar Amerikakoa), eta protagonistak bizi duen eskubidearen inguruko gogoetak agertzen zaizkigu. Hala ere, badu alderdi positiborik: emakumeen arteko elkartasuna edo sororitatea, eta jakintza femeni- noen balioespena (zientzia domestikoa).

Neskameen uniformeko buru-estalkiak ikusezin bihurtzen ditu eta soineko gorria da: hileko, ugalkortasun, sexu, bekatu, arrisku eta biolentziaren sinboloa. Istorio honek, liburuaren azaleko erdiko irudiak nola, horren azpian dagoena agerian uzten digu, historia bestela eraiki dezagun. ●